

MARIA AMPARO ARANGOIA SATRUSTEGUI, ZAURITUA

Penaz beterik argitaratzen ditugu argazki hauek. Baina egiari zor gatzazkio, egiak askatu bait gaitu. Egia garratza, egia mingarria da oraingo hau.

Amparo Arangoak ere egiak aska gaitzak erakutsi du bere gorputz mailatu eta ubeldua.

Amparo arangoa apirilaren 23an detenitu zuten goardazibilek Leitzan, arratsaldeko 3,30etan, lantegitik ertetzerakoan. Leitzako kuarteletik Tolosarakora eraman zuten. Han egon zen 8,30ak arte.

Handik Leitzako midikuaengana eraman zuten. Midikuak Iruiñeko klinikara..

Bixtako zauriez gainera barrukoak ere bazituen klinikara iritsi zenean. Paralisak joak zituen giltzurrunak eta hesteak. Giltzurrun artifizialaz iraun du bizirik.

Virgen del Camino deritzan Segurantzia Sozialeko klinikan ari dute sendatzen. Hilaren 28an jeiki zen zertxobait.

Iruiñeko eta Donostiako zenbait legegizonek hauzia sartu du neska zigortu eta penatu horren erantzunkizuna duenari kontuak eskatzearren.

Gobernuak ere bere aldetik gertaera hau garbitu nahi luke okerra egin duenari kontuak eskatzeko.

(Ez daitezke Z. Argiaren baimenik gabe argitara)